

# LA OPINION DEL LECTOR

## UZEIren PROTESTA

**C**ON fecha de 2-I-82 se incluyó en el diario de su digna dirección "la respuesta de UZEI" al señor Michelena. Agradezco el interés con que se trató el tema en el diario, pero hay un aspecto que creemos debe ser rectificado o señalado. Para conocimiento del lector desearíamos que incluyera la adjunta carta en la sección de correspondencia al director.

En la seguridad de que podrá complacernos, le saluda atentamente JOSEBA INTXAUSTI.

DEIAren zuzendari jauna:

Zuen 1982-I-2an "UZEI erakundearen erantzuna" Mitxelena jaunari argitaratu duzue. Textua ez da gurea.

Guk euskaraz eta espainieraz bidali genizuen gure erantzuna, Mitxelenak ere bere eritziak euskaraz (irratiz) eta espainieraz (mintzaldiz nahiz izkribuz) zabaltu dituen eran. Gure erantzunaren sarreran, hain zuzen, horixe adierazten genuen: zuek hori dena kendu egin duzue eta, zeuen kabuz, haren "Muga"-ko artikulua erantzunetara bakarrik bihurtu. Mugapen hori ez da zuzena eta argigarria izan, baitera.

Sinestu ere ezinezkoa, ordea, egia da: zuek argitaratzen duzuen euskarazko "UZEI erakundearen erantzuna" textua ez dela gurea. Goitik be-

heraino birmoldatua eta zuzena da, kakotx artean gure bezala emana egon arren. Mitxelenaren artikulua bezalaxe zuek gurea ere zeharo berrituz egin duzue. Kontu egiten bada gure jatorrizko textua euskarazkoa zela, espainierazkoa haren itzulpena, DEIAk argitaratu duena hirugarren eskualdiko formulaketa bilakatzen da, eta zuzen eskukoa, ez guk emana.

Gainera irakurleari ez diozue inolako garbitasunik ere ematen, irakurtzen ari dena zuzen etxeko itzulpena duela adieraziz. Ez dakigu jokabide hori zergatik hautatu duzuen. Gure aldetik ez zaigu joko garbia iruditzen, ezta albistaritza serioa ere, irakurleari engainu hori egitea. UZEI erakundearekiko, aldiz, itsuskeria gogorra bait da, nere protesta agertu beharrean aurkitzen naiz.

**OÑARRA:** UZEI eta Mitxelenare arteko polemikaren ingurua argitzea izan da beti gure asmoa eta horrela jokatu genuen urtarilaren 2ko artikuluan. Halabeharrez zenbait pasarte laburtuz jokatu genuen eta guretzat interesgarri zirenak gorde genituen. Halaz ere arrazoi du Joseba Intxaustik, UZEI bidalitako izkribuen gaztelaniazko itzuli egin genuela dioenean. Ez da hortan jokabide maltzurrik izan, euskarazko lanaren galdu izana baizik, bestelakoan ez bait genukeen gure bizkar hartuko itzulpenaren eginkizun latza. Itzulpenak UZEIren jarrera guztiz aldrebestu badu, gure erruak onartuko genituzke halaz ere.